

Beasain BHI

Xabier LETE gogoan

Ekainaren 8an, ostirala, Igartzako jauregian, 18:30ean, musika eta literatura uztartu dituen ekitaldia antolatu dugu "Xabier LETE gogoan" izenburupean. Denboraz eta mimo handiz prestatutako ekitaldia izan da eta arrakasta handia lortu du.

Irati Goikoetxea beasaindar idazle ezagunak, goxo eta modu hunkigarrian, egin ditu aurkezpen eta lotura lanak. Guztira, Xabier LETEren 15 poema aukeratu eta kantatu edo errezipatu dira.

Musikariak, besaindarrak biak eta oso ezagunak, Karlos Gimenez pianojolea eta sortzailea eta Martin Kortaberria biolinjolea izan dira. Bikain aritu dira.

Eurek lagunduta 9 poema kantatu dituzte Maria Redondok (ETBko BAGO!AZ lehiaketa irabazi berriak) eta Ander Sarriegi beasaindarrak. Ondokoak izan dira:

1. Malkoak euri balira
2. Haizea dator
3. Xalbadorren heriotzean
4. Habanera
5. Maiteaz galdezka
6. Jardin bat zuretzat
7. Agian
8. Ni naiz
9. Kontrapas

Errezitzaileak, berriz, Irati Goikoetxea bera, Maddi Aiestaran beasaindar idazle eta bertsolari gaztea eta Gabino Murua Gabiriako irakasle ohia izan dira. Musikaz lagundurik ondoko poemak errezipatu dituzte:

1. Sinisten dut
2. Azaroko arratsaldean elurra ikusi dut
3. Neguan izan zen
4. Baztango lurra
5. Aberri ilunaren poema
6. Esku hutsik hiltzen gara

Ekitaldi hunkigarria eta oso arrakastatsua izan da. Musikari, kantari, errezipitzaile eta gidariaren lana bikaina izan da; kantu-poema bakoitzaren amaieran eta jaialdia amaitu denean entzun den txalo-zaparradak adierazi duen moduan. Maria Redondok, telebistako "izar" izatea zer ote da gero!, ekitaldiaren hasieran eta amaieran, bere zaletu gazteei arreta berezia eskaini behar izan die: autografoak, argazkiak.